



Ospitaleko sendagaiei buruzko informazioa




ADALIMUMAB - IMRALDI® PRESTATZEA ETA ADMINISTRATZEA

Adalimumab-a, izen kopmertziala Imraldi®, luma aurrekargatu gisa aurkezten da, erabilera bakarrekoa, eta larruazalpetik ematen da.







Gaixotasun inflamatorioen zantzueta eta sintometan eragiten duen farmakoa da.

ARRETA-NEURRIAK

Infekzio-zantzurik baduzu (katarroa, sukarra...), sendagaia eman aurretik, jarri harremanetan zure erreferentziako medikuarekin.

MATERIALA	
	
KONTSERBAZIOA	
<p>Gorde luma hozkailuan 2-8 gradu artean, inoiz ez izozkailuan. Gorde luma kaxan eta babestu argitik.</p>	
MEDIKAZIOA ADMINISTRATZEA	
<p>Jarri aurrez kargatutako luma eta alkoholdun toallatxoak gainazal garbi eta lehor baten gainean</p>	
<p>Itxaron 15-30 minutu aurretik kargatutako luma giro-temperaturara iritsi arte.</p>	



<p>Egiaztatu iraungitze-data eta ziurtatu likidoa gardena dela eta ez duela partikularik eman aurretik. Normala da aire burbuila bat egotea.</p>	
<p>Garbitu eskuak. Aukeratu izterretako edo sabelaldeko azal osasuntsuko eremu bat. Saihestu zilborraren inguruko eremua, larruazal gorritua duten eremuak, orbainak, ezkatak, hematoma ... dituztenak. Garbitu injekzio-lekua alkoholdun toallatxo batekin. Ez ukitu berriro.</p>	
<p>Kendu kontuz orratza babesten duen lumaren kaputxoi gardena. Ez jarri berriro, oinarri berdearen azpian ezkutatuta dagoen orratza kaltetu dezakeelako.</p>	
<p>Lumak ez du botoirik. Jarri lumaren oinarri berdea bertikalean (90°) azalaren gainean eta sakatu beherantz irmotasunez injekzioa automatikoki has dadin (1. klik bat entzungo duzu).</p>	
<p>Eutsi lumari azalaren kontra, 10 segundo arte kontatuta, adierazle horia mugitzen gelditu eta leihoa bete arte (2. klik bat entzungo duzu).</p>	
<p>Kendu luma azaletik, 90°-ko angeluari eutsiz. Presionatu injekzio-lekua segundo batzuetan. Ez igurtzi eremua. Bota edukiontzi horian erabilitako luma. Garbitu eskuak.</p>	

Berrikusia: 2019ko azaroa

HI-DIGESTIBOA-08

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu arreta ematen dizuten profesionali.